

## EBALUAZIO BEREZIRAKO EPAIMAHAIAREN IRIZPIDEAK

Dagokion ikasturterako Fabrikazio Aurreratuaren Unibertsitatearen "Graduko ikasketen kudeaketarako arautegia" eskatutako baldintzak betetzeaz gain, epaimahai bereziak honako irizpide hauek ezartzen ditu *Ebaluazio bereziaren bidezko ebaluazioetarako eskariak ebazteko irizpideak* artikulua b) idatz-zatian deskribatutako kasuetarako.

Ikasgai batean Ebaluazio bereziaren bidez gainditua lortu ahal izateko, honakoa bete behar da:

- Gainditzeko falta den konpentsa daitekeen azken ikasgaia bada (Taula 1):

$$0,25 * K_1 + 0,5 * K_2 + 0,25 * K_3 \geq 5,0$$

- Ez bada gainditzeko falta den konpentsa daitekeen azken ikasgaia:

$$0,25 * K_1 + 0,5 * K_2 + 0,25 * K_3 \geq 5,5$$

donde  $K_1$ ,  $K_2$  y  $K_3$  son los criterios descritos a continuación.

Taula 1: *Ikasgai eta ECTS konpentsagarri eta konpentsa ezinen zerrenda.*

	Kompentsagarriak	Ez kompentsagarriak <sup>1</sup>
1. maila	60 ECTS	0
2. maila	52 ECTS	8 ECTS (ALT1)
3. maila	42 ECTS	18 ECTS (ALT2 + ECT)
4. maila	32 ECTS	28 ECTS (ALT3 + ME + TFG)
GUZTIRA	186 ECTS	

### **$K_1$ : konpentsatu beharreko irakasgaiaren gehieneko kalifikazioa ( $C_{max}$ )**

- 3 eta 4,9 arteko tartea hartzen da kontuan.
- Baldin eta  $C_{max} = 3$ ,  $K_1 = 0$  puntu; aldiz  $4,7 \leq C_{max} \leq 4,9$  bada,  $K_1 = 10$  puntu.
- Tarteko puntuazioak proportzionalki lortzen dira formula honen bidez:

$$K_1 = \frac{10}{7}(C_{max} - 3)$$

### **$K_2$ : Espedientearen batez besteko nota eskaera ixteko unean ( $N_{exp}$ )**

- 5 eta 7 arteko tartea hartzen da kontuan.
- Baldin eta  $N_{exp} = 5$ ,  $K_2 = 0$  puntu; aldiz  $N_{exp} \geq 7$  bada,  $K_2 = 10$  puntu.
- Tarteko puntuazioak proportzionalki lortzen dira formula honen bidez:

$$K_2 = 5 * N_{exp} - 25$$

<sup>1</sup> ALT1: Alternantziaren lehenengo fasea, ALT2: Alternantziaren bigarren fasea, ALT3: Alternantziaren hirugarren fasea, ECT: Ikerketa Zientifiko Teknologikoa, ME: Atzerriko misioa, TFG: Gradu Amaierako Lana

**K<sub>3</sub>: Matrikulatutako irakasgai kopuruen artean kontsumitutako deialdien kopurua:**

$$R = \frac{\text{Graduan orain arte kontsumitutako deialdien kopurua}}{\text{Orain arte graduan matrikulatutako ikasgaien kopurua}}$$

- 1 eta 2,5 arteko tartea hartzen da kontuan.
- Baldin eta  $R = 1$ ,  $K_3 = 10$  puntu; aldiz  $R \geq 2,5$  bada,  $K_3 = 0$  puntu.
- Tarteko puntuazioak proportzionalki lortzen dira formula honen bidez:

$$K_3 = \frac{50}{3} - \frac{20 * R}{3}$$

Epaimahai berezia  
Onartze data: 2022/06/20